



ALDIZKARI OFIZIALA BOLETIN OFICIAL

29 ZENBAKIA
XII LEGEALDIA
2025eko maiatzaren 21a

NÚMERO 29
LEGISLATURA XII
21 de mayo de 2025

AURKIBIDEA

Laguntzak eta subentzioak

- 2025ko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzei buruzko proposamena

SUMARIO

Ayudas y subvenciones

- Propuesta relativa a las subvenciones de cooperación internacional de 2025

Laguntzak eta subentzioak

Ayudas y subvenciones

2025ko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzei buruzko proposamena

Propuesta relativa a las subvenciones de cooperación internacional de 2025

Gipuzkoako Batzar Nagusietako MAHAIAk, 2025ko maiatzaren 20an egindako bileran, ERABAKI hau hartu du, besteak beste:

La MESA de estas Juntas Generales de Gipuzkoa en su reunión celebrada el día 20 de mayo de 2025, ha adoptado entre otros el siguiente ACUERDO:

“Ikusirik zerbitzu juridikoek prestatutako proposamena, 2025ko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzei buruzkoa:

“Vista la propuesta elaborada por los servicios jurídicos, relativa a las subvenciones de cooperación internacional de 2025:

- Nazioarteko lankidetzari lotuta dauden irabazi asmorik gabeko elkarteentzako laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onestea, eta deialdia Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta webgunean argitaratzea.

- Aprobar la convocatoria, con sus bases reguladoras, de las ayudas a asociaciones sin ánimo de lucro vinculadas a la cooperación internacional, y su publicación en el Boletín Oficial y en la Web de las Juntas Generales.

Iñigo Balerdi Lizarralde izendatzea deialdi horri dagokion espedientearen instrukzio-egile.

- Designar a Iñigo Balerdi Lizarralde instructor del expediente correspondiente a esta convocatoria.

- Balorazio Batzorde bat eratzea, ganberaren Mahaiairi zuzendutako proposamen bat egin dezan. Ebaluazio Batzorde hori honako funtzionario hauek osatuko dute: Iñigo Balerdi —lehendakari—, Arantza Etxeberria —idazkari—, eta Cristina Dorronsoro eta Gerardo Uribetxeberria —kide—.

- Constituir una Comisión de Valoración para que elabore una propuesta dirigida a la Mesa de la Cámara, constituida por las siguientes personas funcionarias: presidente, Iñigo Balerdi, secretaria Arantza Etxeberria, y vocales Cristina Dorronsoro y Gerardo Uribetxeberria.

- Batzarkide-taldeetako bozeramaileei horren berri emango zaie, jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioetarako”.

- Dar traslado a las/los portavoces de los grupos junteros, para su conocimiento y efectos oportunos”.

Donostian, 2025ko maiatzaren 20an.

Lehendakaria

Xabier Ezeizabarrena Saenz

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEK
NAZIOARTEKO LANKIDETZAKO PROIEKTUEI
DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE
SUBVENCIONES DE LAS JUNTAS GENERALES
DE GIPUZKOA A PROYECTOS DE
COOPERACIÓN INTERNACIONAL

OINARRI ARAUTZAILEAK

BASES REGULADORAS

1.- Xedea eta gehieneko zenbatekoa.

Oinarri hauen xedea da nazioarteko lankidetzarekin lotutako ekimen, ekintza edo proiektuetarako dirulaguntzak arautzea, gobernuz kanpoko erakundeentzat edo antzeko entitateentzat.

Dirulaguntza hauetara bideratutako gehieneko zenbatekoa 50 550 eurokoa izango da guztira.

2.- Eskabideak. Edukia, epea eta aurkezteko modua.

Eskabideetan ondoren zehazten den informazioa jaso beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan:

- a) Erakundearen oinarrizko datuak (izena, erregistroa, helburuak, jarduera eta ibilbidea, etab.), eta pertsona fisiko arduradunen nortasuna.
- b) Harremanetarako pertsona, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- c) Proiektuaren azalpen-memoria.
- d) Aurrekontu xehatua, gastu eta ingresu kontzeptuen arabera, bai proiektu osoarena eta baita ere eskatzen den dirulaguntzarena.
- e) Proiektuak jasotako edo eskatutako beste dirulaguntzen zerrenda, xehetasuna eta zenbatekoa.
- f) Erakundeak proiektuaren kudeaketan edo antzeko beste batzuetan duen

1.- Objeto e importe.

Es objeto de las presentes bases regular las ayudas para iniciativas, acciones o proyectos relacionadas con la cooperación internacional destinadas a organizaciones no gubernamentales o entidades similares.

El importe máximo destinado al conjunto de las ayudas será de 50 550 euros.

2.- Solicitudes. Contenido, plazo y modo de presentación.

Las solicitudes deberán contener la información que seguidamente se especifica en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

- a) Los datos básicos de la entidad (denominación, registro, objetivos, actividad y trayectoria, etc.), y la identidad persona o personas físicas responsables.
- b) Persona de contacto, teléfono, y email.
- c) Memoria explicativa del proyecto.
- d) Presupuesto detallado por conceptos de gasto e ingreso, tanto del proyecto en total como de la subvención que se solicita.
- e) Relación, detalle y cuantía de otras subvenciones recibidas o solicitadas para el mismo proyecto.
- f) La experiencia de la entidad en la gestión del proyecto o en otros similares, y una

esperientzia, eta erakundeak proiektua gauzatzeko kaudimena eta gaitasuna baduela —teknikoa eta ekonomikoa— behar bezala azaltzea.

- g) Proiektuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean edo emakumeen ahalduztzean izango lukeen eraginaren azterketa (genero-eraginari buruzko azterlanak proiektu horrek emakumeen eta gizonen bizitzan izango lituzkeen emaitzei eta ondorioei buruzko azterketa egiten du, bereizita, genero-desberdintasunen ekoizpena edo hazkundea identifikatzeko, prebenitzeko eta saihesteko helburuarekin).

Aurkezteko modua: eskabideak aurreko atal guztiak bereizita aurkeztuko dira, gehienez 5 orriko luzera izango dute eta adierazitako eduki guztiak jaso beharko dituzte.

Eskabide horri oinarri hauen arabera eska daitezkeen aitorpen eta egiaztagiria erantsiko zaizkio, bai eta erakunde eskatzaileak egokitzen jotzen dituen eranskinak ere (adibidez, proiektuaren azalpen zehatzagoa). Aurkezten diren agirietan, nahitaez jaso beharko da eskabideko atal bakoitzeko informazioa, eta 4. oinarriko «b», «c» eta «d» apartatuetan eta 5. oinarriko «c» eta «d» apartatuetan ezarritako adierazpenak eta dokumentuak.

Eskabideetan aurkeztu beharreko informazio edo dokumentazioan akats edo omisioen bat badago, 5 egun balioduneko epean zuzendu ahal izango dira, espedientearen instrukzio-egileak horren berri ematen duenetik zenbatzen hasita.

Eskabideak aurkezteko epea **hilabetekoa** izango da, deialdia Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, eta erakundearen webgunean ere argitaratuko da.

Eskaera egiteko, eskabidea eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu behar dira

explicación suficiente de la solvencia y capacidad de la entidad -técnica y económica- para llevar a cabo el proyecto

- g) Un análisis del impacto que el proyecto tendría en la igualdad entre mujeres y hombres o en el empoderamiento de las mujeres (el estudio sobre impacto de género hace referencia al análisis sobre los resultados y efectos que dicho proyecto tendría en la vida de mujeres y hombres, de forma separada, con el objetivo de identificar, prevenir y evitar la producción o el incremento de las desigualdades de género).

Forma de presentación: las solicitudes se presentarán diferenciando todos y cada uno de los apartados anteriores y tendrán una extensión máxima de 5 hojas y deberán incluir todos los contenidos indicados.

A dicha solicitud se añadirán las declaraciones y justificantes que sean exigibles según estas bases, así como los anexos que la entidad solicitante considere pertinente presentar (una explicación más detallada del proyecto, por ejemplo). En la documentación que se aporte deberá figurar necesariamente información relativa a todos y cada uno de los apartados de la solicitud, las declaraciones y documentos que se indican en los apartados “b”, “c” y “d” de la base 4, y en los apartados “c” y “d” de la base 5.

Los errores y la omisión de información o documentación que es preciso presentar en las solicitudes podrán ser subsanados en el plazo de 5 días hábiles desde que sean advertidos de ello por parte de la persona instructora del expediente.

El plazo para presentar las solicitudes será de **un mes** desde la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de las Juntas Generales, que se hará pública también en la Web de la institución.

Las solicitudes, junto con la documentación requerida, deberán presentarse en el registro

Gipuzkoako Batzar Nagusietako erregistroan (Miramon pasealekua 164, Donostia), edo emailaz bidali helbide honetara: dirulaguntzak@bngipuzkoa.eus.

Legez ezarritako beste edozein bidalketa-bide onartuko da.

3.- Printzipio arautzaileak.

Dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

Publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

- a) Efikazia, dirulaguntza ematen duen entitateak ezarritako helburuak betetzeari begira.
- b) Efizientzia, baliabide publikoen esleipenari eta erabilerari begira.

c) 4.- Entitate eskatzaileen betekizunak:

Dirulaguntzak jaso ahal izateko, entitate eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Irabazi-asmorik gabekoak entitate bat izatea.
- b) Legeen arabera eratuta eta dagokion erregistroan formalki inskribatuta egotea.
- c) Egoitza soziala edo ordezkaritza bat edukitzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan.
- d) Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuetakoa debekuetatik bakar bat ere ez urratzea. Arau horretan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako debekuak ez dituela urratzen egiaztatzeko, erantzukizunpeko adierazpena egin ahal izango da.

Entitateen partzuergo batek aurkeztutako proiektuek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak. Kasu horretan, partzuergoan

de las Juntas Generales de Gipuzkoa (Paseo Miramón, 164 de San Sebastián), o ser enviadas por email a la siguiente dirección: dirulaguntzak@bngipuzkoa.eus.

Se admitirá cualquier otro medio de envío legalmente establecido.

3.- Principios reguladores.

La gestión de las subvenciones se realizará de acuerdo con los siguientes principios:

- a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.
- b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la entidad otorgante.
- c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

4.- Requisitos de las entidades solicitantes.

Las entidades deberán cumplir los requisitos que se especifican a continuación para poder acogerse a las subvenciones:

- a) Ser una entidad sin ánimo de lucro.
- b) Estar constituida e inscrita formalmente en el registro que corresponda.
- c) Disponer de sede social o delegación en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- d) No incurrir en ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La acreditación de no incurrir en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones que se establecen en la citada disposición podrá realizarse mediante declaración responsable.

También podrán tener acceso a la subvención los proyectos presentados por un consorcio de entidades. En este caso, cada una de las

bildutako entitateetako bakoitzak aurreko betebeharrak guztiak bete beharko ditu eta osatzen duten erakundeek proiektuaren baterako erantzukizuna onartzen dute.

Partzuergoan bildutako entitateek helbide bakar bat adieraziko dute, espedienteko jakinarazpen administratiboak bertan jaso ahal izateko, eta egoitza soziala edo ordezkaritza bat eduki beharko dute Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

5.- Proiektuen betekizunak.

Proiektuek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Hego Globaleko herrialde eta herrietan gauzatzen diren edo gerra-egoeran dauden proiektuak izan beharko dute, edo herrialde horietatik datozen edo migrazio-egoeran edo nazioarteko babes-neurri baten zain dauden pertsonen laguntzeko proiektuak. Laguntza edo esku-hartze mota hauek izan daitezke: hezkuntza-proiektuak, gizarte eraldatzeko ekimen edo ekintza zehatzak, larrialdiko eta ekintza humanitarioko laguntza-proiektuak, garapen-proiektuak, etab.
- b) Proiektu bakoitzeko eskatutako gehieneko zenbatekoa 12 000 eurokoa izango da.
- c) Proiektuak deialdiaren aurrekontu-ekitaldiaren barruan hasi beharko dira.
- d) Ez dira diruz lagunduko deialdiaren aurreko urteetako gastuak.
- e) Erakunde eskatzaile bakoitzak ezin izango du proiektu bat baino gehiago aurkeztu.

6.- Kanpoan uzteko arrazoiak.

Kanpoan geratuko dira eskabidea egiteko baldintzak betetzen ez dituzten proiektuak (bigarren oinarria), erakundeari eskatutakoak betetzen ez dituztenak (4. oinarria) eta

entidades consorciadas deberá cumplir los requisitos precedentes y asumen la responsabilidad conjunta del proyecto.

Las entidades consorciadas designarán un domicilio único a efectos de las notificaciones administrativas del expediente y deberán disponer de sede social o delegación en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

5.- Requisitos de los proyectos.

Los proyectos deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) Deberán ser proyectos que se lleven a cabo en países y pueblos del Sur Global o que se encuentren en situación de guerra, o de ayuda a personas provenientes de esos países que se hallen en situación de migración o a la espera de una medida de protección internacional. El tipo de ayuda o intervención podrán ser proyectos de educación, iniciativas o acciones puntuales de transformación social, proyectos de ayuda de emergencia y de acción humanitaria, proyectos de desarrollo, etc.
- b) La cuantía máxima solicitada por proyecto no podrá superar los 12 000 euros.
- c) Los proyectos deberán tener su inicio dentro del ejercicio presupuestario de la convocatoria.
- d) No se subvencionarán gastos de años anteriores al de la convocatoria.
- e) No se podrá presentar más de un proyecto por entidad solicitante.

6.- Causas de exclusión.

Serán excluidos aquellos proyectos que no cumplan los requisitos para formular la solicitud (base segunda), los exigidos a la

proiektuei eskatutakoak betetzen ez dituztenak (5. oinarria).

Proiektu bat kanpoan utzi daiteke, halaber, baldin eta:

Bideragarria ez bada, aurreikusitako emaitzak lortzeko behar diren baliabideak behar bezala ez aurreikusteagatik.

a) Denboran iraunkorra ez bada.

b) Giza eskubideak errespetatzen ez baditu.

c) Ez badu bermatzen proiektua gauzatuko den lekuko herritarren parte-hartzea, zuzenean edo tokiko erakundeen bitartez.

d) Ez badu ingurumena edo natura errespetatzen

entidad (base 4) así como a los proyectos (base 5).

Podrán ser también excluidos aquellos proyectos que:

No sean viables por no prever adecuadamente los recursos necesarios para la consecución de los resultados previstos.

a) No sean sostenibles en el tiempo.

b) No respeten los derechos humanos.

c) No garanticen la participación de la población del lugar en el que se vaya a ejecutar el proyecto, bien directamente o a través de organizaciones locales.

d) No respeten el medio ambiente o la naturaleza.

7.- Proiektuak baloratzeko eta dirulaguntzen zenbatekoak esleitzeko irizpideak.

Eskabideak ondoren adierazten diren irizpideen arabera ebaluatuko dira. Irizpide bat baloratu ahal izateko, proiektuak argi eta garbi azaldu beharko du bere xedeak irizpide hori barne hartzen duela.

Proiektu bakoitzean ebaluatzen diren irizpideek puntuazio maximoa edo puntuazioaren erdia jasoko dute, proiektua gauzatzeak balorazio-irizpideari dagokionez lor dezakeen intentsitatearen arabera.

Proiektuak bere xede den lekuan edo pertsonengan izango duen eragin positiboa. Irizpide hori baloratzeko, kontuan hartuko da haren eragina, bai eta haren onuradun izango diren pertsonen kopurua ere: 10 puntu.

a) Proiektuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko edo emakumeen eskubideak babesteko egiten duen ekarpena. 10 puntu.

b) Adingabeen eskubideak babesteko edo haiei eragiten dieten kalteberatasun-

7.- Criterios de valoración de los proyectos y de asignación de las cuantías de las subvenciones.

Las solicitudes serán evaluadas conforme a los criterios que se indican a continuación. Para que un criterio sea valorado, el proyecto deberá explicar claramente que su objeto lo incluye.

Aquellos criterios que en cada proyecto sean evaluados recibirán la puntuación máxima o la mitad de esa puntuación, según el nivel de intensidad que la ejecución del proyecto pueda alcanzar para con el criterio valorativo.

Repercusión positiva del proyecto en el lugar o en las personas que caracterizan el objeto del mismo. Para la valoración de este criterio, se tendrá en cuenta su impacto, así como el número de personas que se van a ver beneficiadas por el mismo: 10 puntos.

a) La contribución del proyecto a la promoción de la igualdad entre mujeres y hombres o la protección de los derechos de las mujeres: 10 puntos.

b) La importancia del mismo para protección de los derechos de los

egoeretan esku hartzeko duen garrantzia: 10 puntu.

menores de edad o la intervención en situaciones de vulnerabilidad que les afecte: 10 puntos.

c) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kultural batekoak direnak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab., eta b) eta c) irizpideetan baloratu ez direnak: 10 puntu.

c) Que las personas destinatarias o beneficiarias del proyecto estén en situación de especial vulnerabilidad o exclusión social, tales como personas con discapacidad, con enfermedad crónica o mental, minorías étnicas o culturales, personas LGTBI, personas sin hogar, víctimas de violencia, terrorismo o persecución, personas migrantes o refugiadas, etc. y que no se hayan valorado en los criterios b) y c): 10 puntos.

d) Proiektua lehenago Batzar Nagusiek diruz lagundu izana eta erakunde berak kudeatu izana, 10 puntu gehienez: 2 puntu helburu bererako emandako laguntza bakoitzeko.

d) Que el proyecto haya sido anteriormente objeto de subvención por parte de las Juntas Generales y gestionado por la misma entidad con un máximo de 10 puntos: 2 puntos por cada ayuda concedida para el mismo objeto. Si el proyecto no es idéntico, pero guarda una gran analogía, se concedería 1 punto.

e) Proiektua ez bada berdina, baina analogia handia badu, 1 puntu emango zaio.

e) La aplicación de estos criterios dará como resultado la jerarquización de los proyectos, conforme a la puntuación obtenida.

Irizpide horiek aplikatuta, proiektuen hierarkizazioa lortuko da, jasotako puntuazioaren arabera.

Asimismo, aquellos proyectos que no obtengan al menos un mínimo 15 puntos no serán objeto de subvención.

Era berean, gutxienez 15 puntu lortzen ez dituzten proiektuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

Con el fin de asegurar la viabilidad de los proyectos, ninguno recibirá menos del 75% de la cuantía solicitada.

Proiektuen bideragarritasuna ziurtatzeko, ezein proiektuk ez du eskatutako zenbatekoaren % 75 baino gutxiago jasoko. Irizpide horiek aplikatzearen ondorioz, guztizko baturak deialdiaren zenbatekoa gainditzen badu, balorazioaren ondoriozko hierarkian puntuazio txikiena duten proiektuak baztertu egingo dira, eta aurrekontu-esleipenaren zenbateko osoaren hainbanaketa egingo da hobekien baloratutako proiektuen artean, lortutako

Si como consecuencia de la aplicación de estos criterios, la suma total excediese del importe de la convocatoria, se excluirían los proyectos con menor puntuación en la jerarquía resultante de la valoración, y se hará un prorrateo del importe total de la consignación presupuestaria entre los proyectos mejor valorados en función de la puntuación obtenida y respetando los límites establecidos en las presentes bases.

puntuazioaren arabera eta oinarri hauetan ezarritako mugak errespetatuz.

8.- Espedientearen instrukzioa, ebazpena eta jakinarazpena.

Batzar Nagusietako Mahaiak onetsiko du dirulaguntzak emateko ebazpena.

Mahaiak izendatzen duen ganberako zerbitzu juridikoetako langilea izango da espedientearen instrukzio-egilea.

Instrukzio-egile horrek txosten bat idatziko du aurkeztutako proiektu guztien balorazioarekin, eta Balorazio Batzordeari aurkeztuko dio azter dezan, eta hark proposamena egingo dio Mahaiari.

Balorazio Batzordea ganberako Kontratazio Mahaia izango da, eta honako hauek osatuko dute: zerbitzu juridikoetako bi funtzionarioek, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketako funtzionario teknikoak eta dokumentazioko funtzionario teknikoak.

Ebazpena eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean emango da, Aldizkari Ofizialean eta Batzar Nagusien webgunean argitaratuko da eta erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie.

Ebazpena errekurritu egin ahal izango da; horretarako, hautazko berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Mahaiari hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian.

9.- Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntza aldez aurretik ordainduko da, justifikatu aurretik. Ordainketa bakar batean egingo da, esleipena ebatzi ondoren, inolako bermerik aurkeztu beharrik gabe.

8.- Instrucción del expediente, resolución y notificación.

La Mesa de las Juntas Generales será el órgano que adoptará la resolución de concesión de las subvenciones.

La persona instructora del expediente será aquella perteneciente a los servicios jurídicos de la Cámara que designe la Mesa.

Esa persona instructora redactará un informe con la valoración de todos los proyectos presentados, y lo someterá a la consideración de la Comisión de Valoración, que elevará una propuesta a la Mesa.

La Comisión de Valoración será la Mesa de Contratación de la Cámara, formada por las dos personas funcionarias de los servicios jurídicos, por la funcionaria técnica de gestión económica y presupuestaria y por el funcionario técnico de documentación.

La resolución se adoptará en el plazo máximo de 3 meses desde el fin de plazo para presentar solicitudes, se publicará en el Boletín Oficial y en la Web de las Juntas Generales y se notificará a las entidades solicitantes.

La resolución podrá ser recurrida, interponiendo recurso potestativo de reposición ante la Mesa, en el plazo de un mes, o directamente un recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

9.- Abono de la subvención.

El abono de subvención se realizará mediante pago anticipado, con carácter previo a la justificación. Se hará en un único desembolso, con posterioridad a la resolución de la adjudicación, sin necesidad de que se aporte garantía alguna.

10.- Aplikatu beharreko araudia

Oinarri hauek eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 3/2007 Foru Araua. Modu osagarrian, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua.

11.- Dirulaguntzen justifikazioa.

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate onuradunak txosten bat aurkeztuko du, **dirulaguntza ordaindu denetik sei hilabeteko epean** gehienez ere. Txosten horrek elementu hauek bilduko ditu:

Narrazio-atala edo gauzatzeari buruzkoa: txosten deskribatzailea da eta bertan proiektua nola garatzen ari den azaltzen da.

a) Atal finantzario bat, eta bertan sartuko dira dirulaguntzaren gastuen frogagiriak eta, hala dagokionean, tokira bertara egindako transferentziak egiaztatuko dituzten dokumentuak. Nolanahi ere, azkeneko txosten finantzarioan dirulaguntzaren zuzeneko kostu guztien % 100 justifikatu beharko da.

b) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

c) Hala badagokio, ordainketa-gutuna, baldin eta aplikatu gabeko gerakinik badago.

Justifikazio-txostena aurkezteko epea luzatu ahal izango da beste sei hilabete, Batzar Nagusien Mahaiak hala erabakitzen badu, erakunde interesdunak behar bezala justifikatutako eskaera egin ondoren justifikatzeko epea amaitu baino lehen.

Justifikazio-txostena aurkezten ez bada edo txosten horrek ez baditu behar diren elementuak biltzen edo dirulaguntza ez bada

10.- Normativa aplicable

Las presentes bases y la Norma Foral 3/2007 de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Supletoriamente, la ley 38/2003 General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo.

11.- Justificación de las subvenciones.

Las subvenciones se justificarán mediante la presentación de un informe, en un plazo máximo de **seis meses tras el abono de la subvención**. Dicho informe contendrá los siguientes elementos:

Un apartado narrativo o de ejecución: son informes descriptivos en los que se indica la situación en que se encuentra el desarrollo del proyecto.

a) Un apartado financiero, que incluirá los justificantes de gastos de la subvención y, en su caso, los documentos acreditativos de las transferencias realizadas a terreno. En todo caso, en el informe financiero final deberá justificarse el 100% del total de los costes directos de la subvención.

b) Una relación de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y de su procedencia.

c) En su caso, la carta de pago en el supuesto de remanentes no aplicados.

El plazo para la presentación del informe justificativo podrá ser ampliado seis meses por decisión de la Mesa de la Cámara, previa solicitud debidamente justificada por parte de la entidad interesada antes de que finalice el plazo de justificación.

En el caso de que no se presente el informe justificativo o este no reúna los elementos debidos o no se haya destinado la subvención

esleitutako xederako erabili, dirulaguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

12.- Gehiegizko finantziaziorako debekua.

Erabaki honen babesean emandako laguntzen zenbatekoa, helburu bererako beste diru-sarrera eta baliabide batzuk ematen direnean, ez da inoiz izango erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua edo dirulaguntzaren xedearen kostua baino handiagoa.

13.- Dirulaguntzak itzultzea.

Erakunde onuradunak ez baditu betetzen oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak, dirulaguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galduko du eta dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko ditu, 3/2007 Foru Arauak (martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa) 35. artikuluan ezarritakoari jarraikiz; gainera, hortik eratorritako erantzukizunei ere aurre egin beharko die, foru-arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

14.- Oinarriak inpgnatzea

Oinarri arautzaile hauek errekurritu egin ahal izango dira; horretarako, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Mahaiari, zeina hautazkoa izango baita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian.

para el objeto concedido, se iniciará un procedimiento de reintegro de la subvención.

12.- Prohibición de sobrefinanciación

En ningún caso el importe de las ayudas concedidas al amparo de este Acuerdo, en concurrencia con otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá superar el coste de la actividad a desarrollar por la entidad local o de la finalidad para la que se concedió la ayuda o subvención.

13.- Reintegro de las subvenciones.

El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases reguladoras dará lugar a la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y, consiguientemente, la entidad beneficiaria tendrá la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha norma foral.

14.- Impugnación de las bases

Estas bases reguladoras podrán ser recurridas, interponiendo un recurso de reposición ante la Mesa, que será potestativo, o directamente un recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.